

ERABAKIA, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GERENTEARENA, ZEINAREN BIDEZ ARGITARATZEN BAITIRA KARRERAKO LANGILE GISA SARTZEKO HAUTAKETA-PROZESUAN DEITUTAKO LANPOSTUAK, PROZEDURA ARRUNTAREN BIDEZ, UPV/EHU BARNE PROMOZIOKO MODALITATEAN, 2019KO, 2020KO, 2021EKO ETA 2022KO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZARI DAGOKIONA, ERREKTOREAREN 2020KO URRIAREN 20KO EBAZPENAREN BIDEZ DEITUTAKOA.

ARTXIBO, BIBLIOTEKA ETA MUSEOETAKO FAKULTATIBOAK

UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2019ko abenduaren 12ko Erabakiaren bidez, administrazio eta zerbitzuetako langileen 2019ko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartu zen (2019ko abenduaren 24ko EHAA, 244. zk.). UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 17ko Erabakiaren bidez, 2020. urteko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartu zen (2020ko abenduaren 31ko EHAA, 262. zk.). Gobernu Kontseiluaren 2021eko abenduaren 16ko Erabakiaren bidez (2021eko abenduaren 24ko EHAA, 265. zk.), 2021. urteko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartu zen, eta Gobernu Kontseiluaren 2022ko maiatzaren 24ko Erabakiaren bidez (2022ko maiatzaren 31ko EHAA, 104. zk.), administrazio eta zerbitzuetako langileentzako 2022. urteko lan eskaintza onartu eta 2019, 2020 eta 2021. urteetako lan eskaintzak aldatu ziren.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2022ko urriaren 20ko EBAZPENAREN bidez, deialdi espezifikoetan barne-promozioren bidez sartzeko hautaketa-prozedura arautu duten oinarri espezifikoak argitaratzeko agintzen da.

Prozedura arruntaren bidez (barne-promozioko modalitatea) karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesuko epaimahaiak hartutako erabakiaren bidez, gaitututako behin-behineko azken kalifikazioa onartu zen, puntuazio-ordenaren arabera eta III. eranskineko 8.5 oinarri orokorraren arabera, *“Behin-behineko azken kalifikazioarekin batera deialdi espezifiko bakoitzean eskaintzen den lanpostuen zerrenda argitaratuko da. Eskaintako lanpostuen zerrendan zehaztuta egongo dira: eskala, lanpostuaren izena, atxikipenez dagokion zentro organikoa, lanpostua zein udalerritan dagoen, lanpostu mailako osagarria eta osagarri espezifikoa, hizkuntza eskakizuna, derrigortasun data, lanaldia eta lanpostuaren betebeharrak espezifikoak”*

Horregatik guztiagatik eta UPV/EHUko errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko erabakiaren bidez (otsailaren 12ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz,

ERABAKI DUT

Lehenengo. - Barne-promozioko modalitatean karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesuko Artxibo, Biblioteka eta Museoetako fakultatiboen eskalaren

deialdian deitutako lanpostuen zerrenda argitaratzea, horien zerrenda baten bidez, eta deialdi espezifikoak arautzen dituzten oinarri espezifikoetako lehenengoan ezarritakoarekin bat etorritik, honako hauek adierazita: eskala, lanpostuaren izena, atxikita dagoen zentro organikoa, destinoko herria, esleitutako destino-osagarriaren eta espezifikoaren mailak, hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, lanaldia eta betekizun espezifikoak.

Bigarrena. - Ebazpen hau argitaratzea horretarako gaitutako UPV/EHUren webgunean (<https://www.ehu.eus/eu/web/azp/ope-barne-promozioa>) eta Enplegu Atarian (https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp).

Hirugarrena. - Erabaki honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke gerenteari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke zuzenean dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean. Epeok erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira zenbatzen.

Lore Bilbao Artetxe

UPV/EHUko gerentea